

Lekua:
Bilbon, GEBren egoitza. Uriortu kalea, 11 - behea

Hizkuntza: gaztelania

Izena emateko epea:
2017ko urtarrilaren 9tik 20ra

Ikasle-kopurua: 20

Izena emateko:
www.gaztebehatokia.euskadi.eus




Ikastaroa

Erotika 2.0:

zibersexoa, sexting-a eta intimitatea
pornografia bihurtzea nerabezaroan





Ikastaroa Erotika 2.0: zibersexoa, sexting-a eta intimitatea
pornografia bihurtzea nerabezaroan

Helburu orokorra da jakitea zer-nolako eragina duten nerabeek adierazteko, komunikatzeko eta harremanak izateko duten eran Internetek eta harremanak izateko eta komunikatzeko zenbait baliabide digitalek, arriskuak gutxitzeko asmoz.

Helburuak:

- Nerabeen identitatea sortzerakoan baliabide digitalek duten garrantziaren berri izatea.
- Mundu birtualean, komunikabide digitalen bidez izaten diren topaketa erotikoen ezaugarri bereziak aztertzea.
- Sare sozialetan eta onlineko beste komunikazio-plataforma batzuetan, gortea egiteko eta seduzitzeko betetzen diren erritoak aztertzea.
- Nerabeek sareetan izaten duten gehiegizko erakustaldi erotikoa eta emozionalean eragiten duten faktoreak aztertzea.
- Harreman, Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak ondo erabiltzen irakasteko jarraibideak ematea, arriskuak gutxitze aldera.
- Azken hamarkadetan pornografiak izandako eboluzioa aztertzea, bai eta Internet bidez izan duen hedadura masiboa ere.
- Pornografiak aurrenerabezaroan duen inpaktua ezagutzea.
- Nerabeek pornografiak egiten duten erabilerari heltzeko klabeak ematea.



Ikastaroa Erotika 2.0: zibersexoa, sexting-a eta intimitatea
pornografia bihurtzea nerabezaroan

Metodologia:

Teorikoa eta praktikoa. Zenbait eduki teoriko helarazteaz gain, mota askotako edukiei eta materialei buruzko azterketa, eztabaida eta gogoeta egiteko esparruak sortuko dira, banaka zein taldeka.

Parte-hartzaileen interesei eta beharrei etengabe egokitzeko, saio guztiak taldeko dinamika autoebaluatzaile baten bidez amaituko dira.

Komeni da parte-hartzaileek telefono mugikorra, tableta edo ordenagailu eramangarria izatea, datu mugikorrekin.

Ikastaroaren hartzaileak:

Lehentasuna izango dute gazteekin **lan egiten dutenek edo lankidetzan dihardutenek** (entitateetan, elkarteetan, herri-administrazioetan, enpresetan, ikastetxeetan, boluntariorizan...). Horrez gain, kontuan izango da **izen-emateen hurrenkera**.

- **Gazteen arloko langileak** (Gazteentzako Informazioa, udalak, aldundiak, gazte-elkarteak eta aisialdikoak, eta beste entitate batzuk).
- Gizarte- eta familia-**hezitzaileak**.
- Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako **orientatzaileak**.

Programa:

1. saioa: Nortasun digitala kudeatzea: Intimitatea versus Extimitatea.
2. saioa: Erlazio digitalak: 3.0 bikotea.
3. saioa: 'Erotika 2.0: zibersexoa, sexting-a eta intimitatea pornografia bihurtzea nerabezaroan'.

Irakasleak

EMAIZE Sexologia Zentroa.

Entitate antolatzailea:

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA > Gazteria eta Kirol Zuzendaritza > Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. **944031645 • gaztebehatokia@euskadi.eus**